

# **BERMEO**

Bizkaiko udalerririk andienetarikoa da Bermeo, bai bere lurraldearen zabalereari jagokonez eta bai bere kondaira luze eta aberatsari jagokonez be. Itsasoagaz estu-estu besarkatuta dago, bere nortasunaren zati bat itsaso eta ozeanoetan zear zabaldu dau erritarrentzako elikagaien bila. Itsasorako bokazino orrek goitik beera bereizten dauz bere bizilagunen izakerea eta bere ingurua aztertzekeo area.

Bermeokeo udal barrutiak aparteko berezitasunak eskaintzen deuskuz, bai paisajistikoak bai ekologikoak. Orrexegaitik artu dau erri administrazioak berak berezko ondare baliotsu ori babesteko ardurea, eta lurraldearen zati andi batzuk babestutako gune natural bitan sartu dauz, Urdaibaiko Biosfera Erreserbean eta Gaztelugatxekeo Itsas Biotopoa.

Argitalpen onek Bermeo erakutsi gura dau bere paisajearen eraldaketa aldetik eta, sarritan aaztuta izan arren, gure arbaso jakintsuek itxitako legadu ekologikoaren aldetik. Bermeo, ezelango duda barik, gaur guk zaintzen doguzan egundoko kultur legaduak batzen dauzana da, gure paisajea, gure bazterrak, gure egaztiak, gure basoak eta gure inguru arrigarria, ain zuzen be.

Orretarako Historiaurretik asi eta gaur arteko begiradea botako deusagu Bermeori, menditik itsasora, gure erreken norabideak jarraituko doguz, ekosistema eta paisajerik baliotsunetan barruratuko gara eta bere aparteko landaretzea eta fauna ikaratia ezagutuko doguz. Alanda ze, inguratzen gaituen paisajea deskubritzeko eta ezagutzeko gonbita da eta, ekosistemen auskortasuna ezagutuz, gure ingurumena zaintzea danon eginkizuna dala gogoratzeko, orixe izango dalako gure ondorengoek jasoko daben legadurik andiena.

## **Deskripzino orokorra**

Bermeo, oro ar, arro idrografiko baten adierazgarri ona da. Bere lurralde guztiak Sollubeko maldetatik itsasertzera ino eroan gura gaitu, geienetan Artiken ilten diran ur-etorri aldakorreke erreka eta errekastoz osotutako sare hidrografiko baten barruan.

Udalerriak 33,31 km<sup>2</sup>-ko zabalera dauka, Urdaibaiko Biosfera Erreserbako andienetarikoa, ain zuzen be. 1984tik aurrera dogu babestutako gune orretako kide. Iparraldetik itsasoa dau mugakide; Egoaldetik, barriz, Meñaka, Arrieta eta Busturia; Bakio eta Mungia Sartaldetik; eta Mundaka eta Sukarrieta, azkenik, Sortaldetik. Gorabeera geografiko aipagarriena Sollube mendikatea da, eta gailurrik altuena Iturrita edo Sollube Txikerra dau (652 m), Arrietagaz eta Busturigaz egiten dauen muga. Gero Garbola (477 m) eta Burgo (452,2 m). Itsasertzari jagokonez, ostera, Matxitxako lurmuturra, Akatxe eta Gaztelugatxe ugartetxoak eta Izaro ugartea dira aipagarrienak.

Artika da ibai nagusia eta menditik beera datozen baso-errekek berari emoten deusiez euren urak udan, siketea dala-eta, ur-etorririk geiena galtzen daben arren: Lamiarango erreka, Perretxina, Montemoro, Berdantxa, Aranondo, Landabaso, Infernuerrekea, Etxebarrierreka, Galdizerreka, Ametzagaerreka.

Udalerrian bederatzi auzo dagoz: Agirre, Almika, Arane-San Pelaio, Artika, Arranotegi, Demiku, Mallu, San Andres eta San Migel. Urigune zabala dauka, eta Artika itsasoratzen dan lekuan bertan asten da, ganera, uriko arrantza portua; Bermeoren benetako biotza, aren inguruan ibiliko da udalerriko bizitza sozioekonomiko guztia.

Paisajea oso maldatsua da, aldatz andikoa da gailurretatik ibarreko lautadarako jatsierea. Trantsizino orretan gunerik garaienetan basoak dira nagusi, pinuz eta eukaliptoz jantzitako baso-landaketak; ibarraren barrenean, ostera, ez dago leun-leuna dan arlorik, erliebe gorabeeratsua agertzen deusku. Landazabal atlantiarretan bizkargune txikiak dira nagusi an-or-emengo baserrien begiradapean.

Sekulakoa eta ugaria da Bermeoko itsasgunea. Bertan topau geinkez, natureari jagokonez, Kantauri egaleko punturik interesgarrienetako batzuk: batez be ugartetxoak, labarrak, badiak, arrantzalekuak (kaiak) eta lurmuturrak; danen artean Matxitxako lurmuturra nabarmentzen da, au da, E.A.E.ko itsasertzeko probintzietan iparrerengo dagoan puntua.

## **Bermeoren astapenak: kulturearen eta ingurunearen bilakaerea**

### **Historiaurrean**

#### **Aurrekari historiografikoak**

1989ra arte ez genkien Bermeoren Historiaurreko datu bat bera be, utsune legez agertzen zan itsaso-bazterreko uri oneri buruzko monografietan (Anasagasti 1985: 17). Bermeoren Historiaurreari buruz agiriak falta izatearen arrazoia, geien batean, udalerrri barruko lurretan eremu karstikorik ez egotea da. Arlo au ez jaken deigarri gertatu Urdaibairen leenengo ikerlariei (1918-1980) eta kobak aztertzen eta arakatzen aalegindu ziran batez be, eta Historiaurreko populatzearen beste aukera batzuk baztertu egin ebezan, esate baterako zerupeko bizilekua. Aurrerago ikusi aal izango dogunez, Bermeo, kobarik bako lurraldea izan arren, oso aberatsa dogu zerupeko Historiaurreko aztarnategiei jagokenez.

Bermeoren Historiaurrearen barri jakiteko leenengo ekarpenak Esteban San Pedro Layuno (Geografia eta Historian lizentziaduna) eta Maria Jose Guillem Fabra (Leen ezkuntzako irakaslea) Bermeoko senar-emazteek egindako azterketa-lan sistematikoari zor deusaguz. Leenengo aurkikuntza orreetatik abiatuta sendotu egin ziran azterketa-lanak, eta orreetan AGIRI Arkeologi Kultur Alkarteak be (Lopez Quintana, San Pedro, Guillem eta Gordo 1989) parte artu eban. Sollube mendikatean Historiaurrean izan ziran populatzeetan oinarrituriko azterkuntza egitamua egin eben, Juan Carlos Lopez Quintana arkeologoaren zuzendaritzapean, eta Historiaurreko bost aztarnategitan zortzi ekinaldi egin ebezan indusketa arkeologikoan eta zundaketa estratigrafikoetan (1992-1999).

## **Bermeoren Historiaurrea**

Gaur egun, Bermeoko Historiaurreari buruz daukagun dokumentazio garrantzitsuari esker azken 10.000 urtetik onantzako Bermeoren iragan kulturala eta ingurunea berjaso daikeguz. Historiaurrearen atal ori Olozenoaldiari jagokona da, orain dala 10.000 urtetik gaur arteko aro klimatikoa artzen dauena. Bere ezaugarri garrantzitsuena klimatologia moderau baten finkapena da, gaur egunekora bideratua. Leenagoko aztarnategiak be egon leitekez, esate baterako, paleolitikokoak; izan be, oso ugariak dira Urdaibai inguruan sasoi aretako aztarnategiak. Baina, Bermeon ez da bat bera be topau, gaur arte, beintzat.

## **Azkenengo ehiztari-batzaileen aldia**

Azkenengo eiztari-batzaile taldeen zikloa dogu au, Epipaleolitiko zaarretik Mesolitiko-Neolitiko zaarrera doana (orain 9800 eta 6000 urte bitartekoa). Pareko Landako aztarnategia dogu, ezelango zalantza barik,

aro orreri begira erreferentzia nagusia, inguru estratigrafikoan dagoalako. Badira, dagoaneko, analisi sedimentologiko eta palinologikoen emoitzak inguruaren garapen klimatikoa eta paisajistikoa argitzen deuskuezanak, eta C14-ren (Karbono 14) lau datazio erabatekoak, eurei esker, denporan zeaztu daikeguz aztarnategiaren gune estratigrafikoan antzelnondako kultur eta ingurune gertakariak. (Lopez Quintana, 2000b).

Aldi aretan giza taldeek ekonomia intentsiboa erabilten eben, lurralde txikietan espektro andia eukan ekonomia bera. Alde batetik, ustiapenerako lurraldeak asko murriztu ziran (kontuan artu bear da Paleolitiko garaian eiztari-batzaile taldek errialdean jarduten ebela, zabalera andiko lurraldeetan) eta, bestetik, ustiatzeko baliabideen aniztasuna eta eurei etekina atarateko intentsidadea geitu egin ziran. Ibarrek eskaintzen dabean baliabideak urtaroka eta intentsiboki ustiatzen ebezan: olan, jarduera espezializaduak egozan kostaldeko eta bokaletako baliabideei etekina atarateko (arrantza eta itsaskitegiak); beste batzuk apatxdunen eizan (oreinak, orkatzak eta basurdeak); baliabide botanikoak (urrak, ezkurak, sasi-sagarrak, etab.) batzea jarduera osogarria zan garai aretan. Pareko Landaren kasu jakinean, alako altuerako (526 m) basogune batean dagoanez, urtaroko zeregina zan bertakoa, non eiza lanak eta errekurtsu botanikoen bilketea garatzen ebezan (ikaztutako urren oskol ondakinak ugariak dira aztarnategian). Teknologiarri jagokonez, sukarriakaz itxura geometrikoko gezi-puntak egitea zan garai aretako ezaugarria (trapezoidalak eta triangulatuak, batez be), arkuagaz eizan jarduteko.

Populatzea ziklo orren lehen datuak Pareko Landako beeko geruza edo azpigeruzatik jatorkuz, Epipaleolitiko zaarretik, ain zuzen be (orain 9800 eta 8500 urte bitartekoak). Geruza orretako polena aztertu ezker, ostu galkorrez ornidutako basoak dirala ugarienak ikusten dogu, urretxa eta aretxa, batez be, eta osogarri modura urkia, zumarra eta pagoa agiri dira.

Pareko Landaren bitarteko maila Mesolitiko garaikoa da (orain dala 8500 eta 6500 urte bitartekoa), eta C14-ren datazio i daukaz garai orren garapenez jabetzen diranak: orain  $7510 \pm 100$  eta  $6650 \pm 130$  urte. Informazino palinologikoak Pareko Landaren gune estratigrafikoko momenturik umelena zein izan zan agertzen deusku, eta baliorik altuena zirien esporek (*Juncaceae* eta *Cyperaceae*) artzen dabe. Umeltasunaren igoera orokorra eta tenperaturaren jatsiera erlatiboa izan ziran ostu galkorreko arbolak gero eta geiago ugaritzearen iturburu. Alanda be, Pareko Landaren analisi polinikoen arabera, baso-biotopon urretxa eta aretxa dira jaun eta jabe, eta bigarren mailan pagoa eta urkia. Alanda be, maila ori beekoagaz konparau ezker, arbolen polenaren

atzerakadea igarten da; izan be, gizateriak bizigune ori luzaroan erabili ebanez, aztarnategiaren ondoko basoak ondatu egin ebezan apurka-apurka. Bermeoko Historiaurreko datu garrantzitsu baten aurrean gagoz: gizakiaren eraginez eraldadatutako ingurunearen leenengo segurtasunak.

Azkenik, Pareko Landaren goiko maila Neolitiko zaarrekoa da (orain 6500 eta 6000 urte bitartekoa) eta, aitatu dogun legez, Mesolitikoan izan zan baso-soilketearen ostean, arbola geruzearen gorakadea agiri da bere oinarrian. Ori bai, momentuko baso-berbizte ori galdu egin zan barriro be maila onen gorengo atalean, Neolitiko zaarraren azkenaldian. Estratigrafiaren erregistroaren arabera auxe da arbolen polenik gitxien agertzen dan gunea eta, kontrara, erikazeena (ginarrea) geien agertzen dana. Atzerakada ori gizateriak eragindako deforestazino biziaren ondorena izan leiteke, zerupeko bizilekuak ugaritzeagaz eta naturearen ustiakuntzea areagotzeagaz batera.

*Irakurlea: Eider Gotxi, Bermeo*